



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

LAB sindikatuak Tubacex enpresari eskatzen dio bete ditzala kaleratzeak baliogabetzen dituen epaia eta berehala onar ditzala kaleratutako langile guztiak

LABek Tubacexeko langileak zoriondu nahi ditu, baita borrokan lagundu digun jende guztia ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak Tubacexen kaleratzeen deuseztasuna deklaratzeko duen epaia ezagutu ondoren. Eredugarria izan baita lorpen hau ekarri duen enpleguaren eta lan- eta bizi-baldintza duinen aldeko borroka.

Borroka hasi zenean, langileek bazekiten luzea eta gogorra izango zela. Gaur 146 egun bete ditugu greba mugagabeen. 146 pikete egun, manifestazio egun, eskualdean eta eskualdetik kanpo martxak, Ertzaintzaren identifikazioak, salaketak, atxiloketak eta kolpeak, hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak epai honen bidez berretsi duena salatzen. Ez dago egiturazko arrazoi objektiborik 129 lankide kaleratzeko, eta ez dago arrazoirik lan-baldintzak suntsitzeko.

Baina bizitakoa gogorra izan arren, Tubacexeko langileek arrazoi asko dituzte harro egoteko egindakoaz eta lortutakoaz. Gaur, beraz, ospakizun eguna da langile guztientzat, eskualde osoarentzat eta Euskal Herriko langileentzat.

LABetik enpresari eskatzen diogu bete ditzala kaleratzeak baliogabetzen dituen epaia eta berehala onar ditzala kaleratutako langile guztiak. Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren erabakia onartzeko eskatzen diogu, etorkizuneko edozein errekurtsio bertan behera uzteko, gatazka hau ahalik eta ondoen itxi ahal izateko eta, mehatxurik gabe, guztion artean Covidaren aldi baterako egoera honen aurrean erabakiak hartzeko.

Sortu duen gatazka eta zentzugabekeriaren aurrean, Tubacex erantzukizunak argitzera behartuta dago, eta, horregatik, Tubacexeko Zuzendaritzaren eta Jesús Esmoris kontseilari ordezkariaren dimisioa eskatzen dugu. Gure ustez, pertsona horiek sinesgarritasuna galdu dute langileen aurrean, eta enpresaren kudeaketa negargarria egiten dutela erakutsi dute; beraz, ez dira solaskide baliogabekide enpresa batzordearekin eta langileekin etorkizunean izango dituzten harremanetan.

Azkenik, zuzenean interpelatu nahi ditugu Eusko Jaurlaritzak eta, zehazki, Industria Saila eta Lan Saila. Gizarteak arrazoiak eman zigun aspaldi, eta orain auzitegiek eman digute arrazoiak. Zer egiteko asmoa du Eusko Jaurlaritzak? LABetik jarrera argia eta zalantza gabea eskatzen dugu: langileak lanera behin betiko bueltatzea bermatu behar du.

Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu ez diezaiela laguntza publikorako



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

zentimorik eman irabaziak murrizten eta, aldi berean, enplegua suntsitzen eta lan-baldintzak prekarizatzen aritzen diren enpresei.

Azkenik, enpleguaren eta lan- eta bizi-baldintza duinen defentsan oinarritutako industria-politika eskatzen dugu.

Laudion, 202eko uztailaren 6an